

# GIPUZKOAKO HARRIBITXIAK

Gipuzkoa beti izan da mendizaletasunari eta mendian egiten diren jardueri loturiko lurraldea, eta segur aski hainbat arrazoirengatik dela esan genezake, esaterako, arrazoi historiko-kulturalak eta bizimoduarekin erlazioaturikoak. Gure arbasoen bizimodua nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritu izan da beste jarduera batzuen artean, eta baserrian bizi izan da belaunaldiz belaunaldi. Bestalde, orografiak ere eragina izan du, haran eta eskualde itxiak, baso eta zuhaitzez josiak. Lurralde honetan euskaldunon artean oso ezagunak ditugun hainbat gune menditsu eta malkartsu zoragarri aurki ditzakegu. Mitologiak berak ere bere oinarria mendi eta basoei lotua du, gure basoetako jauna edo hain ezaguna dugun Mari jainkosa, adibide batzuk aipatzearren.

## TESTU



Ioritz Gonzalez Lertxundi  
(Azkoitia, 1980)

Biologian Lizentziatua eta Irakaslea Bigarren Hezkuntzan, Zientzia arloan. Bere bizitzak mendiko jarduerekin lotura handia izan du, eta kirol eskalada zale amorratua da. Estatuan eta estatutik kanpoko hainbat lekutan 20 urte baino gehiago eskalatzen daramatza, eta egun eskalatzaileek jasaten dituzten lesioak ikertzen dabil, Ekin Ikerketa Taldean. Honekin loturik, hainbat hitzaldi eman izan ditu, hala nola Bilbao MendiFilmean zenbait urtetan.



Jaizkibel. ESKALATZAILEA: Zalao Las Hayas. BLOKEA: Hawai sektoreko Atrévu (7a). ARGAZKILARIA: Beñat Mendiburu

Testuinguru honetan, logikoa dirudi bertako biztanleek zaletasun handia izatea mendian egiten diren kirol eta jardueretarako. Are gehiago, lurralde hau mendiko kirolariaren harrobi izan dela esan genezake, denon memorian izango dira Inurrategi anaiak, Patxi Arozena, Patxi Usobiaga edo Josune Bereziartu bezalako mendizale eta eskalatzaileen izenak. Egungo gazteei galdetuz gero, Mikel Linazisoro edo Eneko Carretero bezalako eskalatzaileak aipatuko lituzkete behar bada, hauek mundu mailako txapelketetan baitihardute, eta aurretik aipaturiko izenak bezalako

mediatikoak ez izan arren, duten maila eta umiltasunak izango du bere buelta ziur aski.

Gipuzkoa, beraz, historikoki maila altuko eskalatzaile ezagunen jatorri izan da, eta beraiei ezaugarri adierazgarrieneraiko bat gustatzen zaien jarduerari eskainiriko dedikazioa eta grina izan da. Agian, ezaugarri hau izan daiteke hemendik kanpo gure lurraldea ezagun izatearen arrazoietakoa bat. Bertsolariek plazak eta pilotariak frontoiak behar dituzten moduan, eskalatzaileek mendiak eta paretak beharrezkoak dituzte hazteko eta hezteko, eta jarduera honetarako

prestaturiko kirol eskalada guneak bereziki. Honela bakarrik uler ditzakegu gure lurraldean ditugun mendizale kopuru eta maila altuko eskalatzaileak izatea, jarduerara hauek burutzeko ezinbestekoak baitira leku eta irakasle egokiak izatea. Hemendik, hainbat ekipatzaileen lana azpimarratu nahi genuke, isilpean egiten duten lanari esker baitugu eskalatzaileok gure jarduerara burutzeko aukera. Baina, gure lurraldea kanpotik datozen eskalatzaileentzat jarduerara hau praktikatzeko helmuga edo destino turistikoa erakargarri bat dela esan genezake?

Alkiza. ESKALATZAILEA: Arkaitza Uranga. BIDEA: Sugar (8a+). ARGAZKILARIA: Garikoitza Uranga



**Artikuluaren helburuetako bat hain zuzen, eskalada gune eta sektore berriagoak ezagutaraztea da**


Gure lurraldea ez da estatu mailan hain entzutetsuak egiten zaizkigun zenbait eskalada eskola bezain ezaguna, Katalunia edo Aragoiko hainbat eskola esaterako, baina baditugu aipamen berezia merezi duten hainbat txoko magiko eta zoragarri, ezagutu eta egun bat eta gehiagoko eskalada jarduerak merezi dituztenak. Honen erakusgarri, perfil zehatzetako zenbait eskalatzaileen bitartek, bereziki urteko sasoi beronetan, bai estatutik gerturatutakoak, bai eta

jatorria estatutik kanpo dutenak ere. Jarraian, egun aipagarrienak iruditu zaizkigun eskolen zerrenda bat proposatuko dugu, beti ere azpimarratuz erreferentziatzko beste eskola batzuk ez ditugula aipatu, ezin dugulako guztiei buruz idatzi, baina honek ez du esan nahi erreferentziatzkoak edo gune egokiak ez direnik, are guxtiago, agian jada ezagunak ditugula baizik. Artikuluaren helburuetako bat hain zuzen, eskalada gune eta sektore berriagoak ezagutaraztea da, gazteagoak direlako edo bide berriez horniturik daudelako, honela irakurleek bere arrazoi artean gehitzeko aukera izan dezaten.

Jarraian, hurrengo eskalada guneen informazioa eskainiko dugu: Araotz (Oñati), Alkiza, Lizarrusti, Getaria/Zumaiako boulderrak eta Jaizkibelgo boulderrak.

**ARAOTZ (OÑATI)**

Aurrerago aipatu dugu gure helburua gune eta sektore gazteen berri ematea zela. Hala ere, Araotzeko gunea aipatzea ezinbestekoa iruditu zaigu, eta honetarako hainbat arrazoi daude. Alde batetik, Euskal Herri mailako erreferente bat delako kirol eskaladan, are gehiago, esango genuke penintsulako iparraldeko erreferenteetako bat dela. Gipuzkoar asko bertan hazi dira eskalatzaile modura, dituen bide kopuruagatik eta kalitateagatik. Bestalde, arrazoi historikoak, Araotzeko guneak 90. hamarkadan egin zituen bere lehen hastapenak, kirol eskaladak bere jaiotza eta garapen izugarria jasan zuen garaian. Bertan ekipatu eta ka-teatu zituzten historia handiko hainbat bide, 8.



1 Errepidean	6a+	12 Supergoxo	7c	21 Zu Zare Hor	7c/+
2 Saguaro	6a+	11 Moco Crónico	7c+	22 Rock In The Kazbah	8a+
3 Serengeti	6a	13 Solidarios	7c+	23 Saizuri	8a+
4 Ametsak Gauzatu	6c	14 Moctezuma King	7b+	24 Saizain Margolaria	8a
5 Txerrikorta	6c	15 El Manager	7c	25 Ordu Txikietan	7c+
6 Txerriboda	7b	16 Matxinada	8a	26 Noraezean	7c+
7 Harri Aroko Erreginak	?	17 Arrantzan Errekara	7c+	27 Mirari	7c+
8 Harremanak	?	18 Nora Goaz ?	8a+	28 Exile on Antigua Street	7c+
9 Sua	8a	19 Non Daude...?	8a+	29 La Mano Negra	8b
10 Carne Cruda	8a+	20 Txabetatarrak	8b		



Zumaia/Getaria. ESKALATZAILEA: Xabi Uribeondo. BLOKEA: Tetzoko filoa. ARGAZKILARIA: Xabi Prieto

mailako Euskal Herriko lehenengotako bideak adibidez. Bertan ere egin izan dira kirol eskaladaren historian sona handia izan duten kateatzeak, Josuneren munduko emakumezkoen lehenengo 8c+ mailako bidea esaterako.

Araotzeko auzoa bestalde, inguru natural eder eta menditsu batean kokatua, hainbat ibilbideren ohiko abiapuntua da; hala nola, Uraren ibilbidearena (PR-Gi-3003) edo Orkatategi eta Degurixa alderako igoerarenak. Aipatzekoak dira, bestalde, Aitzulo Koba, haitzean egindako leiho handia, bai eta inguruan dagoen Sandailiko ermita ere. Arrikruz-Oñatiko Koba ezagunak ere bertan daude, egun bateko bisita egiteko oso gomendagarriak. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: Araotz eta bere harribitxiak: <http://www.oñaturismo.eus/eu/listings/araotz-harribitxiak/>

Dudarik ez da naturazalearen begietara Araotz erakargarritasun handiko bailara dela. Eremu mediterraneoaren eta atlantikoaren trantsizio gunean kokatua, azken urteetan egundaino Gipuzkoan aurkitu gabeko espezieak topatu dituzte ikerlariek bertan. Horren adibide dira, esaterako, gardatxoa (*Timon lepidus*) izeneko muskerra eta *Lesites dryas* sorginorratza; baina fauna aldetik

ez ezik, flora aldetik ere ematen du zeresana Araotzek. Izan ere, bere paisaiaren dibertsitate bertan dagoen landare aniztasunaren isla baino ez da, botanikari askoren ametsetakoa gunea.

Araotzek, alabaina, ez du oraindik duen guztia erakutsi, eta ederki dakite hori biologoek. Hurrengo urteetan, bertan egiten ari diren azterketek aurrera darraiten bitartean, egundaino ezkutuan mantendu diren sekretu asko aterako dira azalera, Araotzek oraindik, asko baitu esateko naturazaleen artean.

### Urrezko zizak deituriko sektorea, eskaladan bere lehen hastapenak egitea nahi dutenentzat oso egokia da

Berriro eskalada guneari erreparatuz, maila guztietako kirol eskaladak eskaintzen dizkigu, eta asko dira kanpotik urteko sasoi beroenetan gerturatzen diren eskalatzaileak, bereziki 7. eta 8. mailako bideen bila dabilzanak. Artikulu honetan ordea, azken urteetan jaio eta garatu

diren sektoreak azpimarratu nahi genituzke, bertan bide berri asko aurkitu baikenitzake.

Azken urteetan hiru sektorek garapen handia jasan dute bertako ekipatzaileen lan esker-gari esker, Mugarri, Korea eta Urrezko zizak sektoreek zehazki. Lehenengoan bide berri asko aurkituko ditugu, helduleku txikiz jositako eskalada tekniko eskainiz. Hemen goizez eguzkiak jotzen du eta arratsaldetan itzalpean egon ohi da, eta 7. eta 8. mailako bideak egiteko udaberri eta udazken partean gune ezin hobea da. Korean aldiz, bi zona bereiztuko genituzke, alde batetik desplomaturiko zona, hemen biak oso fisikoak dira, eta maila altuko eskalatzaileei aukera zabala eskaintzen die. Bestalde, azken urteetan bide berri askoz josi diren plaken zona dago, hemen bide tekniko asko bila ditzakegu, ez dira hain fisikoak, baina ziurrenik gure baliabide guztien erabilpena eskatuko digute. Hau ere aproposa 7. eta 8. mailako bideak egiteko, eta udaberriatik udazkena arte eskalatzeko egokia. Sektore honetan arratsaldean eguzkiak zertxobait jo ohi du, baina urteko sasoiaren arabera itzaletan ordu gehiago egon ohi da.

Azkenik, Urrezko zizak deituriko sektorea aipatu nahi genuke, azken urteetan jaioa. Sektore hau, eskaladan bere lehen hastapenak

## ESKALADA

egitea nahi dutenentzat oso egokia da, bertan 4., 5. eta 6. mailako bideak baitaude. Oso ego-ki ekipaturik dago eskalada munduan lehen pausuak emateko, eta umekin joateko ere oso leku polita eskaintzen digu.

### ALKIZA


Eskalada gune hau Tolosaldeko Erniopeko basoetan dago kokaturik, ingurune baketsu bezain zoragarrian. Hemengo basoetan zuhaitz autoktonoen nagusitasunak dirau, eta adibidez Belako Haitza sektorean hemengo

zuhaitzen presentzia goza genezake, hala nola haginak, pagoak, haritzak, gorostiak edo gaztainondoak.

Basoaren babesean, lurrean zein zutik aurki daitezkeen enbor eta adar hilen menpe bizi diren hainbat intsektu deskonposatzaileen presentzia izango dugu. Usteltzen hasiak diren pagoek *Rosalia alpina*, urdin eta beltz kolore ederretako kakalardoa erakarriko dute, eta haritzek *Lucanus cervus* eta *Cerambyx cerdo*, euren adar eta antenen tamainagatik ezagunak diren zomorro hegalariai. Horiek, ordea, basoko sare trofiko

komplexuaren atal bat baino ez dira izango. Izan ere, saguzar espezie ezberdinek, okilek, edota gaueko anfibio misterioetsuek, arrabioek, hildako egurrean bizi diren intsektu horien beharra izango dute bizirauteko. Egur hilak, beraz, bizia ekarriko dio eremuari.

**Bertako eskalada motak hainbat bide ezberdin eskalatzeko aukera eskainiko dizkigu**



ALKIZA. BELAKO HAITZA

#### BELAKO HAITZA

Ipar ekia  
Urte osoan eskalatu ahal da  
Berako parkinetik 15 min  
Altuera max. 38 m; min. 15  
Lur pribatua  
Mesedez, errespetuz jokatu

1	Proiekt		16	Escipio	7b+
2	Proiekt		17	Orrua	7c
3	Morenito maltzurra	7a+	18	The barbarian	8a?
4	Baidabai	6b+	19	Merkader	8a
5	Tigre moskitoa	7c	20	Erlauntza	8a+?
6	Serak	6c+	21	Ahari	8a?
7	Minimalista	7a	22	Haitzgora eta sugea	8b+?
8	Moztakita	6c+	23	Orgasmatron	7c
9	Moxkorbidea	7a+	24	Haritza basatia	R1 7b/R2 8a+
10	Titipuntak estutuz	7c	25	Ekain bikaina	7c
10b	Marziano rajahoi	7b	26	Belerele	8a
11	Letagin Exuri	7b+	27	Proiekt	
12	Komando extutu	8a?	28	Proiekt	
13	Proiekt		29	Alkiza	7b
14	Baxlan arratoi txakur	7c+	30	Proiekt	b
15	Cuidado burocratas	7c			

Esan genezake eskalada gune jaioberria dela, urte gutxi batzuk baititu, eta azken urte hauetan izugarritzko garapena jasan du ingurune eskalatzailerik esker. Egun, gunearen garapenarekin buru-belarri dihardute, bide berriak ekipatzen eta gunea garbitu eta bertaratzeko bidexkak egiten, jendea bertara hurbiltzeko erraztasunak eskaintzeko asmoz. Bertako eskalada motak hainbat bide ezberdin eskalatzeko aukera eskainiko dizkigu, gehienetan erresistentziak paper garrantzitsua izango duelarik. Ekipatzaileen lan azpimarragarria aipatu nahi genuke, hauei esker gozatu baititzakegu paretak hauek, bere ezaugarriak ederki aprobetxatzen jakin dutelako.

Aipatu beharra dago, eskalada gune hau erregulatutik dagoela, eta beraz kontuan izan behar da eskalatzeko garaia errespetatzea ezinbestekoa dela. Sektoreen erregulazioaren zehaztapenak hurrengoak dira:


- Belako haitza (sektore nagusia): eskalada baimendua urte guztian.
- Hargorri: baimendua urriaren 1etik otsailaren 28/29ra, beste hilabeteetan ez baimendua.
- Endaitzburu: debekatua urte guztian.

Informazio gehiago aurki daiteke Gipuzkoako Mendi Federazioko web orrian.

## LIZARRUSTI

Gipuzkoa eta Nafarroa mugan dugun leku zoragarria da Lizarrusti, mendizale eta naturazale ugariaren jomuga. Batzuk familia giroan, inguruneak eskaintzen dituen aukera ezberdinak eta mendi bueltak egitera gerturatzen dira bertara. Azpimarratzekoak dira, Lareo urtegi bidea, Allukupeko baso-bidea, etab., pagadi ederrez gozatzeko aukera ematen dutenak. Mota eta zailtasun desberdinetako ibilbideak aurkituko ditugu guztion baliabide eta nahietara egokitzen direnak.

Lareoko urtegia bera, eta inguruan aurki daitezkeen argiguneak hainbat anfibio eta narrastirentzako gune aproposak dira. Putzuetako uhandre palmatuak (*Lissotriton helveticus*), edota basopeko baso-igel gorriak (*Rana temporaria*), urtegi ertzeko txantxiku arruntak (*Alytes obstetricans*) edota apo arrunt (*Bufo spinosus*) ibiltariak osatuko dute, besteak beste, bertako anfibioen komunitatea; eta ez da broma, izan ere, egun mundu mailan dagoen ornodun talde mehatxatuenaren parte baitira espezie horiek. Inguruan ibiliko dira ere narrastriak, Lizarrustiko basoak eskaintzen dizkien gune irekietan aurkitzen dituzten eguzkiaren menpe. Suge gorbataaduna (*Natrix astreptophora*), musker berdea (*Podarcis muralis*) edota horma-sugandila (*Podarcis mura-*



Zumaia/Getaria. ESKALATZAILAIA: Jose Luis Urkiz (Beltza). BLOKEA: Olagarro gizoan (B<sup>a</sup>). ARGAZKILARIA: Xabi Uribeondo


*lis*) dira talde horretako partaide arruntak. Urtegi, erreka, baso eta argiguneez, beraz, herpetofaunarentzako paradisua osatu dute Lizarrustiko parajeetan.

Lizarrusti sarreran aterpetxe polit bat dugu, zerbitzu desberdinak eskaintzen dituelarik (lo-

gelak, jatetxea...). Mendi buelta edo eskalada saio baten ostean garagardo bat hartu edo jatordu eder bat egiteko aukera paregabea eskaintzen digu. Honez gain, Aralar Parke Naturaleko Interpretazio eta Harrera Zentroa ere bertan dago, eta bertan mendi ibilbideei

**LIZARRUSTI  
JENDETZA GUZTIAREN GAINETIK 6a+ 110 m**

**MAT:**  
Friend jokua 3 arte  
Mikrofriend jokua  
Fisuak



2015 martxoa  
Mikel Saez de Urabain

buruzko informazio zabala aurkituko dugu besteak beste. Informazio gehiago eskuratzeko <http://www.lizarrusti.com/> webgunean sar-tzea besterik ez dugu izango.

**Sektore ugari daude batez ere azken urteetan bide berriak ekipatzeari ekin diotelako**

Lizarrustik eskaintzen duen eskalada aukerei dagokionez, esan genezake nahiko oparoa dela. Inguruko eskalatzaille desberdinak ederki baliatu dituzte eskalatzeko bide ugari sortuz. Kotxea uzteko parking erosoak izateak, bertaratzeko bide errazak, paraje eder eta lasaiak, pareta azpian eroso egoteko

aukerak eta bideen kalitate onak aitzakia ederrak izango dira bertara gerturatzeko. Guzti honi kirol eskalada eta abenturako bideak bata bestearen ondoan aurki genitzakeela gehitzen badiogu, Gipuzkoa mailan eskalada eremu interesgarri eta gomendagarrietako bat dela uste dugu.

Autoa, Lizarrustiko aterpeko parkingean utziko dugu, eta 15 minuturen bueltan nahi dugun sektorera iritsiko gara aldapa gabeko ibilaldi atsegin baten ondoren. Kirol eskaladako bideak orokorrean nahiko laburrak eta erresistentzia handia eskatzen dutenak dira. Batez ere 7. graduan trebatzeko leku egokia dela uste dugu, nahiz eta bide errazago eta gogorrago batzuk ere badauden. Sektore ugari daude batez ere azken urteetan bide berriak ekipatzeari ekin diotelako. Udan,

bero asko egiten duen egunetan, eta batik batik goizean, freskotasunean eskalatu genezake Sukaldezarreko sektoreetan adibidez.

Aterpe gaineko haitzean, bost minutura, abenturazko bideak daude, eskalada tradizionalekoak alegia. Haitzaren kalitatea paregabekoa da pareta honetan eta eskuzabala babes lekuak ematerako orduan. Negua izango litzateke pareta honetan eskalatzeko garairik hobereana, eta bide ugari aurkituko ditugu. Nahiz eta bide bakoitzak bere ezaugarriak izan, orokorrean 2 joko friend eramatea komeni da irekitako estiloa kontuan hartuz eta paretak eskaintzen dituen aukerak ahalik eta ongien aprobetxatzeko.

Bide bat azpimarratzekotan, bere kalitate, zailtasun eta errepikapenen iritziagatik, Jendetza sektorean dagoen jendetza guztiaren gainetik bidea aipatuko genuke. 110 m dituen bide onek 6a+ zailtasuna du eta 4 luze. Nahiz eta zailtasunaz apala dirudien, gure trebetasun eta arreta guztia eskatuko dizkigu bide honek, aho zapore ederra utziz gailurrera iristean. Jaitsiera ere oso eroso du, basora sartu eta aterpetxerako norantzan ertzetik jarraituz.

Gipuzkoarrok beraz, abenturazko eskaladan murgildu eta trebatzeko etxe ondoan dugun leku paregabekoa da Lizarrusti. Informazio gehiago (krokisak etab.) hurrengo estekan aurki genezake: [www.aralarreneskaldak.blogspot.com/p/lizarrusti.html](http://www.aralarreneskaldak.blogspot.com/p/lizarrusti.html)

**GETARIA/ZUMAIAKO BOULDERRAK**

Bi herri hauen artean dagoen kostako errepidea ezaguna egingo zaigu seguruenik. Bertan, arratsaldeko azken orduetan, eguzki izpiek itsaso gainean harturiko koloreek irudi paregabe bezain ahaztezinak eskainiko dizkigute. Ingurune hauetan, kotxez pasatzen garenean itsasoak gure arreta erakartzen duelarik, konturatu ere ez gara egiten itsasoaren eta errepidearen artean izugarrizko hareharrizko blokeak ditugula, eta inguruko eskalatzaille batzuek jakin izan dute paraje izugarri honetako blokeetan gozamenerako hainbat eskalada proposatzen.

**Eskalada gune hau azken urteetan boulderra praktikatzeko Gipuzkoako erreferentzia bat bihurtu da**

Boulder gune hau ez da beste hainbat bezain ezaguna, eskaintzen dituen eskalada bloke kopurua ez delako hain oparoa, baina bertaratu diren eskalatzailleek ez dute ezbaian jarriko ber-

Jaizkibel. ESKALATZAILAIA: Lander Larrañaga. BLOKEA: Hawai sektoreko Atreyu (7a). ARGAZKILARIA: Iban Garayar





Jaizkibel. ESKALATZAILEA: Iker Fernández. SEKTOREA: Namaste. ARGAZKILARIA: Ibon Aldanondo

tako boulderren kalitatea seguruenik. Bertan eskalatzeko momentu ahaztezinak eskainiko dizkigu, bertako bakeak eta itsasoaren olatuen gertutasunak lagundurik. Aurki ditzakegun blokeek hareharrizko kalitatezko boulderrak eskaintzen dizkigute, eta urteko edozein sasoiatan eskalatzeko aukera izango dugu, beti ere klima eta itsasoaren egoera kontuan hartuz (olatuak gogor jotzen dutenean itsasaldeko blokeak busti egin daitezke).

Aipatu beharra dago itsas ondoan aurkitzen den sektoreaz gain, errepideaz bestalde, mendi alderantz, beste sektore bat dagoela. Honek ere hainbat boulder eskainiko dizkigu eta bere ezaugarriak zertxobait ezberdinak direla esan genezake, sektore hau ez baitago itsasoari so, eta basoan murgildurik dago. Hemengo boulderretan, txakolin landaketetatik metro gutxietara, leku baketsu bezain freskoaz gozatu ahal izango dugu urteko sasoirik beroenetan. Eskalada gune hau azken urteetan boulderra praktikatzeko Gipuzkoako erreferentzia bat bihurtu dela esan dezakegu, eta bertan hainbat eskalada egunez gozatzeko aholkua luzatu nahi dizuegu, ahaztuko ez dituzuen txoko eta eskalada uneak eskainiko dizkizuelarik.

## JAIZKIBEL

Itsasoa eta lurraren arteko borroka etengabe idatzi du bere historia Jaizkibel mendiak. Olatuek zizelkatu dituzte itsaslabarrak

hareharrizko harkaitz bihurritu eta ederrak utziaz. Naturaren gutziak, ordea, ez dira hor amaitzen. Labetxu inguruko geoformek emango diote kolorea paisaiari, eta paramoudra izeneko harri borobilduek erakarriko dituzte bertara gerturatzen diren jakinguratsuen begiradak. Paisaia eder eta aberats horren babesean, ordea, dena ez da harria eta geologia. *Armeria euscadiensis* landare endemikoak jantziko ditu arrosa kolorez maiatzeko itsaslabarrak; eta zainduko dituzte zeruko mugak belatz handiak eta saizuriak.

### Jaizkibel mendia Euskal Herriko eta penintsula iparraldeko boulderrako erreferentzia bihurtu dute

Ez da harrizkoa, beraz, gizakiak Pasaia, Lezo eta Hondarribia herrien arteko lur horiek zapaldu izana milaka urteetan zehar. Hilobiratze zaharrek, harrespilek eta trikuharriek hitz egiten digute horretaz. Mendizale, naturazale eta, zergatik ez, eskalatzailak betetzen dute egun duela gutxi arte Jaizkibelen ibiltzen ziren artzainen lekua. Gunearekiko errespetuaz beti, paisaia paregabe honetaz gozatzeko aukerarik txikienari ere heldu egin behar baitzaio. Horren isla dira azken urteotan inguruko eskalatzailak proposaturiko hainbat boulder eta sektore.

Jaizkibeleko magalean, boulderra, aspalditik praktikatu izan da. Orain gutxi arte, sektore ezagunena Cerillas deiturikoa izan da, baina azken urteotan, itzalpean gelditzen joan da sektore hori, bertako eskalatzailak hainbat eremu berri garbitzen eta irekitzen jardun baitira. Besteak beste, Namaste, Hawaii, Gaztelutarte edo Gorosti sektore bikainak dira horren erakusle. Eta, kopuruan nabarmen handitu bada ere boulderrako aukera, zailtasunean ere gorakada izugarria egin du eremu honek. Horrek guztiak, eta eremu berri hau ezagutarazteko bertako eskalatzailak izan duten grinak, Jaizkibel mendia Euskal Herriko (hegoalde nahiz iparralde) eta penintsula iparraldeko boulderrako erreferentzia bihurtu dute.

Jarraian hainbat esteka erraztuko ditugu, bertako eskaladaren inguruko informazio eguneratua eskaintzeko asmoz. Gainera, bertan laster sektore berrietako krokisak ere eskuragarri izango dira.

- Jaizkibel Boulder: <https://www.facebook.com/Jaizkibel-boulder-864409696941307/>
- Boulder en Jaizkibel: <http://blokejaizkibel.blogspot.com/?m=1>

Eskerrak: Joseba Larrañaga, Iñaki Sanz, Martín Ramírez de Alda, Arkaitz Uranga, Beñat Mediburu.